REVISIÓN DEL

# PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA (PGOU)

Getxo
bizi ezazu

HAPO
PGOU
GETXO

## Comienza el proceso de **participación ciudadana** sobre el Avance del **PGOU**

**La participación está abierta a todas las personas interesadas, entre los meses de julio y octubre de 2018.**



El Ayuntamiento de Getxo continúa en 2018 los trabajos para la revisión del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) del municipio. Para ello, abre a información y participación pública los contenidos del Avance del plan, a través de exposiciones, charlas informativas y sesiones deliberativas que se sucederán entre los meses de julio y octubre de 2018.

El PGOU es el instrumento básico y principal de ordenación integral de los usos y la edificación de un municipio. Regula, básicamente, qué, dónde y cuánto se puede hacer dentro del ámbito físico municipal.

El PGOU vigente actualmente data de 2001. Su revisión, obligatoria por ley, consiste en un proceso largo, con varias fases hasta su aprobación definitiva. Entre 2013 y 2015 tuvo lugar un primer proceso participativo que culminó en diferentes alternativas recogidas en el documento técnico de Avance.

En 2018 se retoma la revisión del PGOU con la actualización de las alternativas y un proceso participativo público, abierto a toda la ciudadanía getxotarra, para definir los criterios y objetivos del Plan General. Considerando éstos se redactará el futuro PGOU, a lo largo de las fases de aprobación inicial, provisional y definitiva.

### Exposiciones y charlas informativas

**Romo Kultur Etxea RKE**
Exposición: 27 de junio - 15 de octubre
Charla informativa: 4 de julio

**Polideportivo Andra Mari**
Exposición: 27 de junio - 15 de octubre
Charla informativa: 11 de julio

**Aula de Cultura de Villamonte**
Exposición: 27 de junio - 15 de octubre
Charla informativa: 6 de septiembre

### ¿Cómo y cuándo puedes participar?

**en persona**
Sesiones presenciales a lo largo de septiembre de 2018

**on-line**
1 de julio - 15 de octubre de 2018

## www.hapo-getxo.eus

**Ahí encontrarás información sobre el PGOU, podrás participar on-line y podrás inscribirte a las sesiones presenciales.**

## ¿Qué regula el PGOU?

El PGOU **clasifica el suelo del municipio** en urbano, urbanizable y no urbanizable, **califica el uso** (residencial, actividad económica, dotacional...) **y la cantidad** (edificabilidad).

Es decir, el PGOU regula **qué, dónde y cuánto** se puede hacer dentro del ámbito físico municipal.

¿Qué modelo de municipio tenemos actualmente y cuál queremos para el futuro? ¿Qué necesidades de espacios libres, vivienda o equipamientos tenemos y cómo queremos que el PGOU las satisfaga? ¿Hace falta más espacio para actividades económicas?... Son algunas de las cuestiones que el PGOU deberá acometer.



Temas del PGOU de Getxo

## Modelo común de municipio y alternativas de crecimiento

El **nuevo PGOU**, considerando las cuestiones con mayor consenso de fases anteriores de estudios previos y pre-avance, debe apostar por un **modelo compacto y mixto que potencie el suelo urbano, integre racional y sosteniblemente los diferentes usos del suelo y que favorezca la cohesión social en todos los barrios y grupos de población**.

Dentro de este modelo de municipio, actualmente se estudian diferentes **alternativas**: cuatro resultaron del proceso participativo anterior (L1-L4) y tres más, con un par de variantes, de origen técnico (T1 - T3'). Cada una de ellas propone una ordenación (número de viviendas, superficie de espacios libres, actividades económicas, etc.). Además, se recogen dos propuestas: una formulada por la asociación Andra Mari Gure Lurra y otra por el Foro Local de Medio Ambiente.

Las nueve alternativas se han actualizado en 2018, en función de las nuevas edificaciones de reciente construcción, y la legislación urbanística actual. Concretamente, el número de nuevas viviendas que el nuevo PGOU puede proponer está sujeto a normativa supramunicipal (DOT y PTP del Bilbao Metropolitano).

Cabe mencionar que el **plan vigente en la actualidad, de 2001,** partía de una población de 84.500 habitantes, y programaba unas 5000 viviendas nuevas, con unas densidades menores y una mayor extensión de suelo urbanizable, agotando todo el suelo del municipio. Hasta 2018, se han edificado unas 2000 viviendas nuevas, las áreas de suelo urbanizable no se han desarrollado y la población ha descendido a 78.500 habitantes; 6.000 habitantes menos.

El **nuevo plan**, en todas sus alternativas, propone **completar el suelo urbano** (bien con uso residencial, de espacio libre y/o equipamental, según las alternativas) y **desclasifica una gran parte de suelo urbanizable** al norte del municipio. Se busca una **menor ocupación del suelo natural,** propiciando la **mezcla de los usos** y actividades, un **modelo de municipio compacto** y la **movilidad activa** (peatonal y en bicicleta) y en transporte público.

| | |
|---|---|
| SUELO URBANO | |
| SUELO URBANO NO CONSOLIDADO | Residencial<br>Terciario |
| SISTEMAS | Sistema general de espacios libres (parques, grandes espacios públicos...)<br>Equipamientos |
| SUELO URBANIZABLE | Residencial<br>Actividades económicas<br>Sistema general de espacios libres (parques, grandes espacios públicos...) |
| SUELO NO URBANIZABLE | |



# HAPO
# HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN

BERRIKUSPENA

Getxo
bizi ezazu

HAPO
PGOU
GETXO

## Getxoko **HAPO**aren aurrerakinean herritarrek **parte hartzeko prozesua** hastear doa

**Partaidetza irekia izango da, 2018ko uztaila eta urriaren artean. Interesa daukan edozeinek parte hartu dezake.**



2018an, Getxoko Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspen-lanekin jarraitzen du. Horretarako, HAPOaren edukiei buruz informatzeko eta parte-hartzeko epea irekiko du. 2018ko uztailaren eta urriaren artean, informazio-saioak, parte-hartzeko saioak eta erakusketak egingo dira.

HAPOa udalerria antolatzeko tresna nagusia eta funtsezkoa da. Laburbilduz, HAPOak zer, non eta zenbat eraiki daitekeen arautzen du, udalerriko eremu fisikoaren barne.

Indarrean dagoen HAPOa 2001koa da. Bere berrikuspena derrigorrezkoa da; baita prozesu luzea ere, hainbat epe baititu behin betiko onespena lortu arte. 2013 eta 2015en artean, berrikuspena egiteko lehenengo parte-hartzeko prozesua burutu zen. Hortik hainbat alternatiba sortu ziren. Alternatiba horiek Aurrerakinaren Dokumentu Teknikoan bildu ziren.

2018an Udalak HAPOaren berrikuspenari berriro ekin dio, alternatibak eguneratuz eta herritarrek parte-hartzeko prozesu publiko bat getxotar guztiei irekiz, horien bitartez Plan Orokorraren irizpide eta helburuak zehaztezko. Horietan oinarriturik etorkizuneko HAPOa idatziko da; hasierako, behin-behineko eta behin betiko onespen-faseetan zehar.

### Erakusketak eta informazio-saioak

**Romo Kultur Etxean RKE**

Erakusketa: ekainaren 27tik urriaren 15era

Informazio-saioa: uztailaren 4an

**Andra Mari Polikiroldegian**

Erakusketa: ekainaren 27tik urriaren 15era

Informazio-saioa: uztailaren 11n

**Villamonteko Kultur Etxean**

Erakusketa: ekainaren 27tik urriaren 15era

Informazio-saioa: irailaren 6an

### Zelan eta noiz har dezakezu parte?

**aurrez aurre**
Parte hartzeko saioak
2018ko irailean zehar

**webgunearen bitartez**
2018ko
uztailaren 1etik urriaren15era

## www.hapo-getxo.eus

**Hor HAPOari buruzko informazioa aurkituko duzu, digitalki parte hartu eta parte hartzeko saioetarako izena eman ahal izango duzu.**

## Zer arautzen du HAPOak?

**HAPOak udalerriko lurzorua sailkatzen du** (hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina), lurzoru horien **erabilera kalifikatzen du** (bizitegirako, jarduera ekonomikoak, ekipamenduak…) eta **zenbat eraiki daitekeen** ezartzen du (eraikigarritasuna).

Hau da, HAPOak **zer, non eta zenbat** egin daitekeen arautzen du udalerriko eremu fisikoan.

Zein udalerri-eredu daukagu gaur egun eta zein nahi dugu etorkizunerako? Zeintzuk dira geure beharrak espazio libre, etxebizitza eta ekipamenduei dagokienez eta nola nahi dugu HAPOak horiei erantzutea? Jarduera ekonomikoetarako espazio gehiago behar al dugu?... HAPOak horiei, besteak beste, ekin beharko die.




Getxoko HAPOaren gaiak

## Udalerri-eredua eta hazkuntza-alternatibak

Aurretiko azterlan eta aurre-aurrerakinaren adostasun handieneko irizpide eta gidalerroetan oinarriturik, **HAPO berriak** honako **udalerri-eredua** proposatzen du: **trinko eta mistoa, hiri-lurzorua indartzeko; lurzoruaren erabilera ezberdinak arrazoizko era jasangarrian osatzen** dituenak; eta auzo eta herritar-talde guztien **kohesio soziala bermatzen** duena.

Eredu horren barne, gaur egun **alternatiba ezberdinak** aztertzen dira: aurreko parte-hartzeko prozesuan sortu ziren lau (L1-L4) eta beste hiru gehiago, aldaera pare batekin, idazle-talde teknikoak proposatutakoak (T1-T3'). Alternatiba bakoitzak antolaketa bat proposatzen du (etxebizitza-kopurua, espazio libreetarako azalera, jarduera ekonomikoak, etab.). Gainera, beste bi proposamen jasotzen dira: bata Andra Mari Gure Lurra elkarteak egindakoa eta bestea Ingurumeneko Tokiko Foroak egindakoa.

2018an bederatzi alternatiba horiek eguneratu dira, eraikin berriak eta gaur egungo hirigintza-legeria kontuan hartuz. Hain zuzen ere, HAPOak proposatu dezakeen etxebizitza berrien kopuruak udalerriaz gaindiko araudia bete behar du (LAGak eta Bilbo Metropolitarren LPP).

Esan beharra dago **indarrean dagoen plana** 2001ekoa dela. Urte horretan, Getxok 84500 biztanle zituen. HAPOak 5000 etxebizitza berri aurreikusten zituen, dentsitate baxuagorekin eta lurzoru urbanizagarri gehiago sailkatuz, udalerriko lurzoru guztia agortuz. 2018 urtera arte 2000 etxebizitza berri inguru eraiki dira, lurzoru urbanizagarriko eremuak ez dira garatu eta biztanleria urritu egin da, 78500 biztanlera jaitsi da (6000 biztanle gutxiago).

Alternatiba guztietan, **Plan berriak hiri-lurzorua osatzea** proposatzen du, (bai bizitegirako, bai espazio libreetarako eta/edo ekipamendurako, alternatiba bakoitzaren arabera). Eta **lurzoru urbanizagarri gehiena sailkapenaz kentzen du**, udalerriko iparraldean. Helburua **lurzoru naturalaren okupazioa murriztea** da, honakoak sustatuz: **erabilera eta jardueren nahasteka, udalerri-eredu trinko** bat eta **mugikortasun eraginkorra** (oinez eta bizikletaz) eta garraio publikoa.

| | |
|---|---|
| HIRI-LURZORUA | |
| HIRI-LURZORU FINKATU GABEA | Bizitegia<br>Tertziarioa |
| SISTEMAK | Gune libreen sistema orokorra (parkeak, espazio publiko handiak...)<br>Ekipamenduak |
| LURZORU URBANIZAGARRIA | Bizitegia<br>Ekonomia-jardueretarakoa<br>Gune libreen sistema orokorra (parkeak, espazio publiko handiak...) |
| LURZORU URBANIZAEZINA | |

